

KULTURAREN UDAL A HOLKU BATZORDEAREN ARAUDIA

ARRAZO IEN AZALPENA

Ordiziako Udalak kulturaren arloan duen helburuetako bat herriko kultur jarduera garatzea eta hiritarren parte hartzea indartzea da. Horretarako, beharrezkoa da bizitza kulturala eta soziala hobetzeko antolatzen diren ekimenak babestea eta bultzatzea. Kulturaren Udal Aholku Batzordea helburu hauek lortzeko tresna eraginkorra izan daiteke, herriarentzako erabaki estrategikoak hartzekoan hiritarren parte-hartzea bultzatuz.

Toki-erakundeei buruzko legediak, halaber, aholkuak eman eta proposamenak egiteko eskumena izango duten arloko aholku batzordeak sortzeko aukera aurreikusten du, hiritarren partaidetza bideratzeko.

Horrekin batera, otsailaren 18ko 4/2005 Legean, Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzko artikulua zehatzetan azaltzen da xede gisa, Euskal aginte publikoek neurri egokiak hartu behar dituztela emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lor dadin erabakiak hartzeko eremu guztietan, Batzorde nagusietan nahiz lan batzordeetan.

Lege honen ondoretarako, pertsona anitzeko administrazio- organoetan ordezkari-tza orekatutzat, hain zuzen, sexu biek %40ko ordezkari-tza, gutxienez, dutenean joko da.

Beste alde batetik, Autonomia Estatutuak Erkidegoari hainbat gaitan esleitzen dizkion eskumenetan oinarrituta, zenbait neurri arautzen ditu emakumeen eta gizonen berdintasuna erreala eta benetakoan dadin esku-hartzeko arlo hauek oinarri direla: partaidetza soziopolitikoak; kultura eta komunikabideak.

Hori dela eta, aipatutako Legea betetzeko, Kulturaren Udal Aholku Batzordea sortzeko araudian, Batzordeetan Ordiziako gizon eta emakumeen presentzia orekatua bermatzeko beharrezko neurriak hartuko dira.

Horiek horrela, Ordiziako Udalak beharrezkotzat jo du araudi honek arautuko duen Kulturaren Udal Aholku Batzorde berria sortzea.



I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Definizioa.

Kulturaren Udal Aholku Batzordea Kulturarekin zerikusia duten udal jardunaren ildoak erabakitzeko, kontsultarako eta parte hartzeko Ordiziako Udalaren organoa da .

2. artikulua. Helburuak.

Kulturaren Aholku Batzordea sektorean parte hartzeko organoa da, aholku-emailea, eta informatzea, eztabaidatzea, proposamenak egitea, kontsultak jasotzea eta aholku ematea ditu eginkizun, bai ekipamenduei dagokienez, bai kultur programazioari dagokionez eta baita euskararen erabilera Kulturaren arloan normaltzeari dagokienez ere. Gure kultur eremuan kalitatea, sormena, berrikuntza, eskaintza, kohesioa eta sareko programazioa bultzatzea izango du helburu.

Kulturaren Udal Aholku Batzordeak helburu hauek ditu:

- a) Aholku organoa den aldetik, Kulturaren inguruko gaietan udalaren politika bideratzea.
- b) Ordizian Kulturaren egoera aztertzea eta eztabaidatzea, erabil daitezkeen baliabideen eta azpiegituren kudeaketa, kultur eskaintzaren programazioa eta hiriko kultur ondarearen sustapen eta babesa.
- c) Ordiziako kultur politikan integratutako neurriak, programak eta jarduerak abian jartzen laguntzea.
- d) Ordiziako Udalak eta eskualdeko beste udallerriek, erakunde publikoek eta elkarte pribatuek sustatzen dituzten ekimenen koordinazioan laguntzea, hirian dagoen kultur dibertsitatearen garapenean laguntzeko.
- e) Genero ikuspegia txartatzen duen kulturaren sustapena bermatzea.
- f) Kultur arloko udal politikaren jarduera-ildo estrategikoak proposatzea, epe ertainean eta luzean.

3. artikulua. Batzordearen funtzioak.

Batzordeak honako funtzioak ditu:

- a) Kultur gaietan udalak egin dituen jardueren berri ematea.
- b) Egituratuta dagoen Lan Batzordeen jarduera ezagutzea eta, hala badagokio, baliozkotzea.



- c) Barne funtzionamendurako arauak onestea.
- d) Batzordeari esleitu zaizkion gainerakoak eta bereziki Lan Batzordeei esleitu ez zaizkionak.
- e) Hainbat arlotan Udalak aurrera eramaten dituen politikak eztabaidatzea, hala nola, kultur programazioa, baliabideen kudeaketa, ekipamenduen oinarrizko definizioa eta hiriaren kultur ondarearen eta tradizioen defentsa.
- f) Kultur ondasun, zerbitzu eta ekintzen planifikazioan parte hartzea, honakoak bultzatzen dituelarik: Kultur ekoizpena, herritarren ahalmen sortzailea, adierazpide artistiko berriak bilatzea eta biztanleriaren sektore guztiek ondasun, zerbitzu eta ekintza horiek eskura izatea, inor baztertu gabe.
- g) Ordezkaritzarekin eta kultur arloan eskumena duen udal entitatearekin batera lan egitea kultur eskaintzari buruzko txosten eta ebaluazio azterlanak sortzen.
- h) Kultur arazoei buruz gogoeta egitea eta proposamenak sortzea udal organo eskudunari helarazteko.
- i) Hirian den kultur aniztasuna garatzeko interesa duten erakunde publiko zein pribatuek aurrera eramaten dituzten ekintzak koordinatzen laguntzea eta inmigrazioak ekarritako kultura desberdineko gizonen eta emakumeen adierazpena eta parte hartzea bultzatzea.
- j) Kulturako gaietan sailen arteko jarduera koordinatuari mesede egingo lioketen neurriak proposatzea.
- k) Kultur eremuan euskararen erabilera normalizatzeko neurriak sustatzea.
- l) Emakume eta gizonen berdintasun eza eta emakumeen aurkako indarkeria azaltzen duten tradiziozko kultur ekintzak aztertzea eta hala dagokionean debekatzea.

II. KAPITULUA

KULTURAREN UDAL AHOLKU BATZORDEAREN OSAERA

4. artikulua. Osaera.

Kulturaren Udal Aholku Batzordeak kide hauek izango ditu:

- a) Lehendakaria: Alkatea izango da Kulturako Udal Aholku Batzordearen lehendakaria; alabaina, edozein zinegotziren esku utz dezake lehendakaritza.
- b) Lehendakariordea: Kultura zinegotzi titularra izango da. Eta lehendakariak bezala, edozein zinegotziren esku utz dezake bere kargua. Aipatutako ordezkapena alde batera utzita, lehendakariordeak lehendakaria ordezkatuko du, azken horren kargua hutsik dagoenean, ez dagoenean edo gaixo dagoenean.



c) Zinegotziak diren kideak: Udalean ordezkari bat duen alderdi politiko bakoitzeko ordezkari bat, alkatearena eta lehendakariordearena kenduta.

e) Zinegotziak ez diren kideak, banaketa honen arabera:

— Ordezkari bat, Ordizian, kulturaren jardutea helburu duen erakunde edo elkarte bakoitzeko.

— Batzordearen onespina duten eta Kulturako gaiekin zerikusia duten beste instituzio edo erakundeetako 5 ordezkari gehienez ere.

-Emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua hartuko da kontuan.

e) Idazkaria: Kulturaren Udal Aholku Batzordeko idazkari izango da udalbatzako idazkaria edo bera ordezkatzeko izendatutako pertsona. Idazkariak, Lehendakariaren ikuskaritzapean, laguntza eta aholkuak emango dizkio Udal Aholku Batzordeari.

f) Lehendakariak, Lehendakariordeak edo edozein kidek hala proposatuz gero, Batzordeko bileretan parte hartu ahal izango dute, batzordeko kideak izan ez arren, hitzarekin baina botorik gabe, Kulturako udal teknikariek eta, besteak beste, Kultura gaietan, berdintasun gaietan..., etab. eta herritarren parte-hartze prozesuetan adituak diren pertsona esanguratsuek.

5. artikulua. Batzordeko kideen izendapena eta kargu-uztea.

1. Batzordeko kideak Alkateak izendatuko ditu. Izendapenak horrela proposatuko dira:

a) Alderdi politikoaren ordezkariak, alderdi horiek proposatuta.

b) Gainerako kideak, ordezkatzeko dituzten erakundearen ordezkari-organoen proposatuta. Batzordean ordezkariak izendatzeko, elkarteek inskribatuta egon beharko dute dagokien Elkartearen Erregistro Orokorrean eta Irabazi Asmorik Gabeko Udal Intereseko Elkartearen Erregistroan.

2. Kideek aldez aurretik onartu beharko dute haien izendapena.

3. Kulturako Udal Aholku Batzordeko kideen agintaldiaren iraupena bat etorriko da izendatuak izan ziren agintaldiarekin. Dena den, ondoko arrazoiengatik kargua utzi beharko dute:

a) Kide izateari uko egiteagatik.

b) Epai irmo baten bidez kargu publiko bat betetzeko ezintasuna edo ezgaitasuna aitortzen denean.

c) Haien karguagatik batzordeko kide diren pertsonen kargua uzten dutenean, batzordea ere - utzi beharko dute.

d) Proposatutako erakundeak kargugabetu duelako edo hautatu zuen elkartearen utzi duelako.

e) Araudi honetan adierazitako funtzioak behin eta berriz ez betetzeagatik.



4. Batzordeko plaza hutsak izendapenerako ezarri den modu berean beteko dira.

III. KAPITULUA

FUNTZIONAMENDU ARAUDIA

6. artikulua. Funtzionamendua.

Kulturaren Udal Aholku Batzordea urtean lautan bilduko da gutxienez.

Lehendakariari dagokio deialdia egitea, eta deialdia bilera-egunaren zazpi lanegun aurretik egin beharko da. Epe berean bidaliko zaie kideei jorratu beharreko gaien buruzko behar adina informazio.

Lehendakariak Aholku Batzordearen deialdia egin beharko du Aholku Batzordeko kideen erdiak hala eskatzen badu.

Batzarrek, deliberazioek eta erabakiek balioa izan dezaten, beharrezkoa izango da Lehendakaria eta Idazkaria edo haiek ordezkatzeko dituzten pertsonak eta, gutxienez, Aholku Batzordeko kideen erdia egotea.

Lehenengo deialdiaren ondoren bigarren deialdian osatutako organoak balioa izango du, baldin eta Lehendakaria eta Idazkaria bertan badaude.

7. artikulua. Deliberazioak.

Aholku Batzordeko lehendakariak batzarrak zuzendu, eztabaidak antolatu eta bilerak ondo egiten direla bermatzeko komenigarriak diren neurriak hartuko ditu.

Halaber, Lehendakariak Kulturaren Udal Aholku Batzordearen eta udal organoen arteko harremanak koordinatuko ditu.

8. artikulua. Lan-batzordeak.

1. Lan-batzordeak osatu ahal izango dira Kulturako gai zehatzak jorratzeko edo Batzordearen gehiengoak beharrezkotzat jotzen duenean.
2. Lan-batzordeen osaera, izena eta funtzionamendua Aholku Batzordeak erabakiko du.
3. Lehendakariak beharrezkotzat eta egokitzat jotzen duen laguntza teknikoa eskatuko du udalean bertan edo udaletik kanpo.
4. Lan-batzordeek jorratutako gaien berri emango diote Aholku Batzordeari.



9. artikulua. Erabakiak hartzea.

1. Kulturaren Udal Aholku Batzordearen erabakiak bildutako kideen gehiengo soilaren bidez hartuko dira. Berdinketa egonez gero, Lehendakariak kalitate botoa emango du. Nolanahi ere, boto partikularrak har daitezke eta ados ez dauden alderdien iritziak agerrarazi.
2. Hartzen diren erabakiak akta batean jasoko ditu idazkariak, eta hartutako erabakiak edo egindako txostenak Kultura Ordezkaritzara bidaliko dira.
3. Kulturaren Udal Aholku Batzordearen erabakiak, proposamenak edo txostenak ez dira izango lotesleak ez Kulturako Ordezkaritzarentzat ez beste edozein Udal organorentzat. Dena den, kontuan izan beharko ditu organo eskudunak bere erabakiak hartzerakoan.

10. artikulua. Funtzionamenduko barne-arauak.

Kulturaren Udal Aholku Batzordeak, Araudi honetan ezarritakoarekin bat etorritz, bere funtzionamenduko barne-arauak ezar ditzake, eta barneko lantaldeak eratu.

Batzarretako ordutegia kideen bizitza pertsonala, eta familiarena uztartzeko moduan ezarriko da. Bestela, aipatutako uztarketa errazteko neurriak hartuko dira.

Horrekin batera, sortzen diren agrietan hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiteko konpromisoa hartzen da.

11. artikulua. Tokia eta Aktak.

Kulturaren Udal Aholku Batzordearen batzarrak udalaren bulegoetan egingo dira. Batzar bakoitzean akta egingo du idazkariak. Hamabost asteguneko epean batzordeko kideei bidaliko zaie eta hurrengo batzarrean onestea edo ez erabakiko dute.

12. artikulua. Bitartekoak.

Kulturako Udal Aholku Batzordea kulturaz arduratzen den udal sailari atxikiko zaio, eta sail horrek bere funtzionamendurako behar dituen bitartekoak eskainiko dizkio.



IV. KAPITULUA

AHOLKU BATZORDEA DESEGITEA.

13. artikulua. Kulturaren Udal Aholku Batzordea desegitea.

Kulturaren Udal Aholku Batzordea desegitea Udalbatzari dagokio. Batzordea desegiteko erabakia legeak ezarritako moduan jakinaraziko da.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

1. Araudi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeitase asteguneko epean, seigarren artikuluan adierazitako elkarteek eta pertsonak, nahi izanez gero, Kulturaren Udal Aholku Batzordean parte-hartzea eska dezakete. Alkateak eskaera horiei erantzun eta onartutako pertsonak deituko ditu Batzordea eratzeko egingo den bilerara.
2. Kulturaren Udal Aholku Batzordea formalki eratuta geratuko da horretarako deituko den bileraren bidez.
3. Batzordea osatu ondoren, bertan parte hartu ahal izango dute Araudi honetan xedatutakoa betetzen duten elkarteek.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudi honetan espresuki aurreikusi ez denari dagokionez, Kulturaren Udal Aholku Batzordearen funtzionamendua eta jarduna Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. kapituluko II. tituluaren xedatutakoaren arabekoak izango dira. Gainerako xedapenetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Tokiko Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudian (2.568/1986 Errege Dekretua) ezarritakoa bete beharko da.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau indarrean egongo da hamabost asteguneko epean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

ALKATEA,

IDAZKARIA,







